

BEZEROEKIN ERLAZIOAK

Enpresa bat bezeroekin erlazionatzean, harreman mota desberdinak daude: online bidez, zuzeneko harremana... Enpresaren helburua, bezeroaren fideltasuna lortu eta mantentzea da.

Gure enpresak, zuzeneko harremana erabiltzen du bezeroekin komunikatzeko, hau da, aurrez aurreko kanala eta online bidezkoa. Noski, gure web orrialdea dugu, baita sare sozialak ere, beraz online gaude bezeroekin kontaktuan. Beti beraien beharretara egokitutako zerbitzuak eskainiz eta bezeroekiko gertutasuna eta konfiantza sustatuz. Gure bezeroengana iristeko gure web orritik online bidez eta sare sozialen bidez erosteko aukera izango dute eta zerbitzu bat kontratatuko dugu produktua banatzeko.



Horrela jokatzuz, bezeroek gurekiko ideia hobea izango dute. Konfiantza eta gertutasuna transmitituz, fideltasuna lortuko dugu. Haien beharrez arduratzen garela ikusiko dute eta guretzako garrantzitsuak direla konturatuko dira, beraien arazoak entzunez eta irtenbide bat bilatuz bakoitzaren beharretara egokituko gara.

Helburu horiek betez gero, bezeroek iritzi ona izango dute gure enpresaz, adeitasuna eta konfiantza transmititzen dituelako. Ondorioz, bezero kopurua handitzea lortuko dugu.